



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO ABENDUAREN 14AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko abenduaren 14an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Batzarrarekin hasi aurretik, Alkate Udalburuak Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen III. Faserako proiektua eta esleipen prozedurarekin hasteko erabakia ere zerrendatzea proposatzen du.

Proiektu honen esleipenarekin gastu konpromesua lortu eta Bizkaiko Foru Aldundira dirulaguntza eskatzea da helburua, honekin dirulaguntza osoa jaso eta bidearen egokipenarekin azken fase honetan bukatuz.

Bertaratutakoek aho batez onartzen dute proposamena, eta seigarren puntu modura honako hau sartzea onartzen da:

“6.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen (III. Fasea) proiektua eta kontratazio baldintza administratibo partikularren agiriaren onarpena, behar bada.-“

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, bilera hasten du.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2009ko azaroaren 5ean izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

- **2009ko azaroaren 2ko 2009/111 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** IBERDROLA DISTRIBUCION ELECTRICAK 2009ko maiatzaren 13ko 41/72009 Alkate Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioan pertsonatzeko erabakia.
- **2009ko azaroaren 2ko 112/2009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier Technology Centre S.Coop. instalazioak handitzeko eskatutako jarduera baimenerako dokumentazio eskaera eta jendaurreko erakustaldia zabaltzea.
- **2009ko azaroaren 2ko 113/2009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udal aurrekontuan aldaketa egiteko espedientearen hasiera.
- **2009ko azaroaren 3ko 2009/114 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernikako polikiroldegirako diru-laguntzen onarpena.
- **2009ko azaroaren 13ko 2009/115 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.U.U.k jarritako ondare erantzunkizun errekurtsioari ezetza ematea.
- **2009ko azaroaren 18ko 2009/116 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** I.I.M.k katastro lurren segregaziorako eskatutako baimena ez beharrezkotzat aldarrikatzea, lehenago aipatu diren lurzati horiek katastroan partzela independenteak osatzen dituztelako.
- **2009ko azaroaren 20ko 2009/117 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko emakume taldearen izenean, A.I.O. eta A.M.N.ri 265,00 euroko laguntza ematea.
- **2009ko azaroaren 20ko 2009/118 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernikako polikiroldegirako diru-laguntzen onarpena.
- **2009ko azaroaren 23ko 2009/119 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Zubitxua-Aristieta bitarteko eta Mentzeta auzora doan oinezkoen bideak onartzea.
- **2009ko azaroaren 27ko 2009/120 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.O.k aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ajangizko Kanpantxu azuoko Iturriondo etxeko sarreran urbanizazio lanetarako baimena ematea.
- **2009ko abenduaren 4ko 2009/121 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.E.E.k aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ajangizko Mendieta auzoko Etxe Txiki etxeko sukaldean azuleju-estaldura egiteko baimena ematea.

3.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKIZEKO LANEN (II. FASEA) BIGARREN ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2009ko irailaren 3an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (II. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 248.894,20 euroko kostuarekin.



Ajangizko Udala

2009ko azaroaren 05ean ospatutako bilkuran, lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak, aurkeztutako 16.944,94 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A09-176 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen 2. ziurtagiria aurkeztu du 45.018,52 euroko kostuarekin.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 45.018,52 euroko kostu orokorrearekin aurkeztutako A09-188 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

1.- Maier-Mendieta landabieda egokitzeko lanen II. faseko bigarren ziurtagiria onartzea, 45.018,52 euroko kostu orokorrearekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 45.018,52 euroko kopuru orokorra duen A09-188 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

4.- 2010 URTEKO UDAL AURREKONTUEN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, aurrekontuak osatzen dituzten dokumentuak aurkeztuta, bertan jasotzen diren partida aipagarrienak azaltzeari ekiten dio.

Alkateak 2010 urterako sarrera jaitzierarik garrantzitsuena Udalkutxari dagokiona dela aipatzen du, %21eko jaitziera baitu. Horri gainera, kontu korronteen interesen jaitziera ere gehitu behar zaio, frontoia eraikitzeke udalak dituen deposituak erabiltzean interesek behera egingo baitute. Sarrera berriei dagokionez, Maiurretik MTCren anpliaziozko zergak direla eta obregatik jasotako zergak eta empresa honitzaileen prezio publikoak gora egitea aurreikusten da. Sarreretan ez dira frontoirako jaso daitezkeen laguntzak agertzen: Erein, BFA... Kopuru hauek eskatu egingo dira, baina ezer ziurtaturik ez dagoenez ez da aurrekontutan sartu. Maiarren legalizazioaren ondoriozko zergak ere ez dira jasotzen, puntu horretan oraindik ezer zehatzik ez baitago.

Gastuetan Maier-Mendieta bitarteko landabidearen III. Fasea, Mendieta frontoiaren eraikuntza eta Hirigintza Arauen erredakzioa dira partidarik garrantzitsuenak. Frontoiaren eraikuntzak 725.973,53 euroko aurrekontua dauka, eta lanen zuzendaritzak 48.372,00 eurokoa.

Alkateak 2010 urteko Udal aurrekontuen behin behineko onarpenerako aurkeztu duen zehaztapidetza osoa kontutan hartuta.

Zehaztapidetza hori osatzen duten honako dokumentu hauek azteruta:

- Ekitaldian kitatzeko sarrera eta gastuen ustezko egoera
- Aurrekontuaren edukinari eta aldaketa nagusienei buruzko memoria
- Konpromiso kredituei buruzko ziurtagiria
- Transferentzia arrunt eta kapital transferentziei buruzko eranskina



Ajangizko Udala

- Pertsonalari buruzko eranskina
- Udal Aurrekontuen exekuzio araua.

Aurrekontu orokorra 1.470.436,16 €koa dela kontutan hartuta, honako sarrera eta gastuen kapitulutan banatuta:

GASTOS		INGRESOS	
CAPITULO I	177.696,74	CAPITULO I	101.500,00
CAPITULO II	261.792,00	CAPITULO II	180.000,00
CAPITULO III	-----	CAPITULO III	75.770,00
CAPITULO IV	29.434,62	CAPITULO IV	558.923,86
CAPITULO V	-----	CAPITULO V	11.603,44
CAPITULO VI	1.001.512,80	CAPITULO VI	151.650,00
CAPITULO VII	-----	CAPITULO VII	-----
CAPITULO IX	-----	CAPITULO IX	402.592,30
TOTAL	1.470.436,16	TOTAL	1.470.436,16

Idazkari kontuhartzailearen eta Ogasun Batzordearen aldeko txostenetan oinarrituta, 2010 urterako udal aurrekontua, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio araua botaziora aurkezten dira, honako emaitza honekin:

- Aldeko botuak: sei (6)
- Kontrakoak: ez daude (0)
- Abstentzioak: ez daude (0)

Jasotako emaitza kontutan hartuta, Alkateak 2010ko aurrekontuak behin behinez onartutzat jotzen ditu, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio arauarekin batera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2 ko 10/2003 Foru Arauak, 15 artikuluan xedatzen duenaren arabera, jendaurrean azaltzen da, Udal honetako Idazkaritzan aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Delako 10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua arabera horretarako eskubidea izan dezaketenez interesatuek, beraien erreklamazioak 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dituzte, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Udaltzatzen aurrean aurkeztu beharko dira.

Adierazitako informazio epea igaro ondoren erreklamazio edo oharrik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko Aurrekontu Orokorra behin betiko onaturik dagoela ulertuko da, akordio berririk zertan hartu gabe.

5.- MENDIETAKO FRONTOI ESTALIA ERAIKITZEKO LANEN PROIEKTUA ETA KONTRATAZIO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta eta Mendietako frontoi estalia eraikitze lanen proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:



Ajangizko Udala

Lehenengo.- Mendietako frontoi estali berria eraikitzeko lanak prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 725.973,53 €ko gastua ere.

Bigarren.- Proiektua eta preskripzio teknikoen orria onartzea.

Hirugarren.- Espedientearen urjentzia aitortzea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen Legeko 96 artikulua jasotzen dituen ondorioekin.

Laugarren.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea. Jardunbidea 2010 urteko aurrekontuan kreditu nahikoa izatera baldintzatuta egongo da.

6.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN (III. FASEA) PROIEKTUA ETA KONTRATAZIO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta eta Maier-Mendieta landabideko III. fasea burutzeko proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen III. faseko lanak prozedura negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 200.796,41 €ko gastua ere.

Bigarren.- Proiektua eta preskripzio teknikoen orria onartzea.

Hirugarren.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea. Jardunbidea 2010 urteko aurrekontuan kreditu nahikoa izatera baldintzatuta egongo da.

7.- GAZTE MUGIMENDUAREN KONTRAKO ESPAINIAR ESTAUAREN ERASO ERREPRESIBOAREN AURREAN MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Beñat Erezuma zinegotziak mozioa irakurtzen du:

“ GAZTE MUGIMENDUAREN KONTRAKO ESPAINIAR ERASO ERREPRESIBOAREN AURREAN MOZIOA:

Azaroaren 23an euskal gazte independentisten aurkako beste operazio poliziala eta judicial bat burutu zuten. Horren ondorioz, hegoaldeko lau herrialdetan Euskal Herriaren eskubideen defentsan aritu diren 34 gazte atxilotu zituzten. Poliziek 90 bat miaketa burutu zituzten: etxeak, gaztetxeak, peñen egoitzak, tabernak...

Atxiloketa hauek arraoi politikoak direla medio burutzen dituzte, pionarrizko eskubideak urratuz eta berme juridikoak ukatuz. Kasu honetan operazio mediatiko-poliziala erabiliz. Bestalde, esan beharra dugu, makro-operazio hau testuinguru politiko zehatz batean egiten dela.



Ajangizko Udala

Izan ere, hilabete hauetan esker abertzalea eztabaida sakonean murgildua dago. Euskal Herria aldaketa politikora eraman eta eskenatoki demokratiko bat eraikitzeke estrategia eranginkorra definitzeko lanean dabil, eta argi dago honi beldurra diola Estatu espainiarrek. Eztabaida hau eta ezker abertzalearen inizatiba politikoa zapuzteko Estatuak horrelako operazio errepresiboak burutuko zituela jakina zen, izan ere, errepresioa da Estatu espainiartrak duen tresna bakarra.

Azken aste hauetan burutu diren atxiloketak eta espetxeratzeko agindu horien atzean, estatuak ideia jakin batzuk dituzten herritarrei parte hartze politikorako eskubidea ukatzeko jarrera politikoa ezkututzen du. Bestalde, aldaketa politiko eta soziala eman ez dadin, estatuak aldaketa horren motorra gripatu nahi du: ezker abertzalea eszenatoki politikotik atera nahi du.

Historia luzea du gure herriak. eta luze, luzeegi, jo du gatazkak. Udal hau osatzen dugun guztiok ondo baino hobeto dakigu errepresioaren bidea ez dela bidea. Errepresioak ez dio gatazkari konponbidea ekarriko. Gatazka gainditzeko errepresioaren aldeko apustuak gainditu behar dira.

Euskal herritarroi hitza eta erabakia zor zaigu, gure etorkizuna askatasun osoz eta egitasmo politiko guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatzean datza konponbidea.

Hau guztia dela eta, honako mozio hau aurkezten dut Udalabatzak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek bere elkartasun osoa helarazi nahi die egun hauetan atxiloturiko gazte guztiei eta euren senide zein lagunei. Halaber, inkomunikazioerregimenak, legeria antiterroristak eta dispersioak eragiten duten eskubideen urraketa salatu nahi du.

2.- Udal honek euren jardun politiko eta sozialagatik espetxeratuak izan diren gazte independentista hauek berehala aska ditzatela exijitzen du.

3.- Udal honek gazte mugimendu, erakunde politiko, social eta komunikabideen aurka zabaldutako prozesuetan gutxieneko berme juridikorik ez duten ehundaka pertsonen bere elkartasuna helarazi nahi die.

4.- Udal honek espainiar estatuaren jardunbide antidemokratiko, autoritario eta errepresiboa salatzen du. Jardunbide horrekin irtenbide bakarra gatazka luzatzen delarik.

5.- Udal hau osatzen dugunok ez gaude egoera hau onartu eta etsitzeko prest. Horrexegatik, gatazka honi irtenbide demokratikoa bilatzeko gure konpromisoa berresten dugu.

6.- Udal honek atxilotuen askatasuna eskatzeko antolatuko diren elkarretaratzearekin bat egin du eta herritar guztiak deitzen ditu bertan parte hartzera.

7.- Azkenik, onartutaren berri herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea erabakitzen dugu.

Euskal Herria.2009.11.25.

Beñat Erezuma Arisketa. Ajangizko Udaleko zientzia.



Ajangizko Udala

Mozioa botaziora aurkeztuta bertaratutako ziengotziek aho batez onartzen dute.

8.- GERNIKAKO OSPITALAREN INGURUKO MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Javier Berrojalbiz zinegotziak, mozioa irakurtzen du:

2002. urtean Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak onartuaz batera, Gernikan “Erresoluzio Handiko Zentro” baterako proiektua ere onartu egin zen. Ondorengo urteetan atzerapen handiak jasan dituen egitasmoa izan da eta eraikuntza obrak 2005era arte ez dira hasiko. Tartean hasiera batean eraikuntza egingo zuen enpresaren porrota gertatzen da, eta proiektua beste enpresa bati esleitzen zaio.

Proiektu honen inguruan hasieratik kezka ugari sortu egin dira. Izan ere, informazio ezberdinak egon dira, ez da Jaurlaritzaren aldetik gardentasunez jokatu, eta gaur egun bertan eskainiko diren zerbitzuen inguruko informaziorik ez dugu.

Bizkaian osasun azpiegituren alorrean eramandako politika ez da batere egokia izan. Gipuzkoan, eskualde mailako ospitaleen aldeko apustua egin bada ere, Bizkaian zerbitzuak ospitale handitan zentralizatu izan dira eta eskualde batzuetan arazo larriak suertatu izan dira, azpiegitura horietara heltzeko distantziak direla eta.

Bide horretan, Ezker Abertzaleak eskualderako ospitalaren aldeko apustua egiten du, herritarrei osasun zerbitzua hurbiltzeko eta ospital handietan jende pilaketarik izan ez dadin. Busturialdeak OSPITALEA behar du, osasun zerbitzuak deszentralizatu behar dira eta herritarrenganako arreta hurbildu egin behar da. Eta Busturialdeak behar duen osasun azpiegitura, OSPITALEA izatea nahi dugu, oheekin eta 24 orduko larrialdi zerbitzuekin.

Hasieratik oso kudeaketa txarra egin da azpiegitura honen inguruan. Hasita lurzoruaen aukeraketarekin – zulo batean sartuta, etorkizuneko zabalkuntzarako arazoekin, egondako lur mugimenduak,...- informazio eta gardentasun ezarekin jarraituz – azpiegitura horretan eskainiko ziren zerbitzuen inguruan, hasiera batean ospitalea izango zen eta horrela dator proiektuaren memorian, gero esaten zaigu oherik gabeko zentroa izango dela eta gaueko 22:00etan ateak itxiko dituela, espezialitate batzuk ez direla egongo, etab. Osakidetzatik ez da egon informazio argirik.

Argi eta garbi esan behar dugu Busturialdeak benetako OSPITALEA behar duela, ez dugu nahi tarteko azpiegiturarik eta hortaz honakoa eskatzen dugu udalbatzak onar dezan.

1. Udalbatza honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Busturialderako OSPITALEA eraiki dezala, hasierako proiektuan agertzen diren 70 oheak mantenduz, pediatria eta helduentzako 24 orduko larrialdi zerbitzuarekin, erditzeak egoteko eta jaioberriak artatzeko zerbitzuekin, espezialitate ezberdinekin eta gaixoentzat onarritako azpiegitura/zerbitzu guztiak publikoak izango dituen.



Ajangizko Udala

2. Udalbatza honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, ospitale horretan eskainiko diren osasun zerbitzuetan, Busturialdeko biztanleriaren hizkuntz eskubideak errespetatzea eta euskaldunok osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea eskatzen dugu.

2009ko abenduaren 3an

Javier Berrojalbiz Bidaguren. Ajangizko zinegotzia.

Mozioa botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute.

9.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate Udalburuak azaltzen du, Bilboko Administrazioarekiko auzien 4. epaitegiak Javier Gamboa Garabieta jaunak Ajangizko UE-1 unitateko etxebizitzaren esleipen-prozesutik kanpo uztea erabaki zuen ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa atzera botatzen duen 2007ko ekainaren 13an Udalbatzak bilkuran hartutako erabakiaren aurka Gamboa jaunak jarritako errekurtsoaren inguruko epaia eman duela.

Epaileak Udalaren iritzia kontutan hartuta, ulertu du erabat justifikatuta dagoela, arbitrarioa ez dela eta zuzenbidearen aurkakoa ere ez dela, lehaiaketan gehieneko eta gutxienezko diru-sarrerak egiaztatze, esleipendunei 2005eko ekitaldiko diru-sarrerak beharrez 2006 ekitaldikoak eskatzearen inguruan Hautapen Mahaiak emandako justifikazioa, Baldintzen Pleguko klausulak interpretatu eta aplikatzeko esparru barruan ulertu behar dela.

Halere, epai honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean.

- Alkateak azaltzen du Enplegu eta tokiko iraunkortasunerako estatu fondotik 48.108,00 euroko laguntza jasotzeko aukera duela Ajangizek. Kopuru hori Mendietako plaza egokitzeko erabiltzea pentsatu du Udalak eta horretarako proiektua egiten dabilta.

- Saneamenduari buruz, alkateak azaltzen du, Busturialdeko ur partzuergoak proiektu onartu eta jendaurrera aurkeztu duela. Udalak jendea abisatu eta teknikariekin batzarra antolatu zuen Udaletxean. Alegazio ugari aurkeztu omen dira eta urtarrilerako erantzungo omen dute Partzuergotik.

- Roman Etxeandia zinegotziak galdetzen du zelan doan Ajangizko Hiri Antolaketa Plan Orokorren erredakzioa. Alkateak Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailari “*estudio de referencia*” delakoa eskatu zaiola aipatzen du eta urtarrialren 18rte ez dela erantzunik izango. Egun horretan erantzuna jaso eta aldaketarik egin behar den edo ez jakingo da. Ingurumen inpaktorako dokumentua eginda dagoenean abantzekin batera jendaurreratuko da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzia eta bost direnean, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA